

KONFIDENTZIALTASUNARI ETA LANEN USTIAPENARI BURUZKO KONPROMISOA

Ikaslearen izen-deiturak:.....

Ikaslearen NAN zk.:

Praktikak egingo dituen enpresa edo erakundearen izena:
.....

Goiko datuak dituen ikaslea Osasun Psikologia Orokorreko masterra egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultatean. Masterraren barruan praktikak egingo ditu enpresa edo erakunde batean, eta horri dagokionez,

KONPROMISO HAUEK HARTZEN DITU:

1. Praktiketara dagoen bitartean bere eskura heltzen diren datu guztien konfidentzialtasuna gordetzea, edozein bidetatik (idatziz, bideoz edo zuzenean ikusi edo entzundakoak), eta, beraz, ez zabaltzea edo erreproduzitzea halako daturik praktika lekutik kanpo edo fakultateko tutorearekin dauzkan elkarrizketetatik kanpo. Zabaltzea ezin dituen datuok bezero, paziente, erabiltzaile, ikasle edo haien senideei buruzkoak izan daitezke, eta izan daitezke ikasleak zuzenean ikusiak edo praktika lekuko langileek emandakoak. Esandakoa bereziki dagokie datu pertsonalei, praktiketako erakunde edo enpresaren artxibo automatizatuetan edo bestelakoetan gordetakoei, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan zehazten diren baldintzetan.

2. Ez erabili edo ustiatzea praktiketako lekuan egindako lanak, kanpoko praktiken txostenean eta Master Amaierako Lanean izan ezik, baldin eta lege hauen babespean badaude: **1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu**



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

PSIKOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE PSICOLOGÍA

bategina onartzen duena; 20/2003 Legea, uztailaren 7koa, diseinu industrialari buruzkoa; 11/1986 Legea, martxoaren 20koa, markei buruzkoa; 11/1986 legea, martxoaren 20koa, patentei buruzkoa; eta gai honen inguruko gainerako legeak. Praktiken lekuan egindako lanak beste moduren batera erabiltzeko, enpresa edo erakundeak baimena eman beharko du idatziz.

3. Praktiketari eta enpresa edo erakundeko langileekiko harremanetan Psikologoaren Kode Deontologikoan jasotako printzipioen arabera jokatzeko.

Eta bere gain hartu duen erantzukizunaren froga, dokumentu hau sinatu du UPV/EHUko Psikologia Fakultateko irakasle/tutorearen aurrean.

Donostia, 20_____ (e)ko _____aren _____ a

Praktiketako ikaslearen sinadura